


Euskal AEko industria-prezioak % 1,8 jaitsi ziren 2020ko martxoan, aurreko hilabetearekin alderatuta

2019ko martxoko datuekin alderatuta, industria-prezioak % 2,7 jaitsi ziren

Euskal AEko industria-prezioak % 1,8 jaitsi ziren 2020ko martxoan aurreko hilabetearekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Datu horiekin, martxoko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen duena, -% 2,7koa izan zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du ezen 2020ko martxoan prezioetan hazkunderik handienak erregistratu dituzten sektoreak aurreko hilaren aldean hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (% 0,9ko igoera) eta *Farmaziako produktuak zein Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (biotan % 0,8ko igoera). Aitzitik, prezioetan hilabete arteko beherakadarik handienak sektore hauetan erregistratu dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 19,5eko jaitsiera), *Erauzketa-industriak* (% 2,2koa) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,6koa).

Ondasunak xede ekonomikoaren arabera sailkatuta, *Ekipo-ondasunak* % 0,5 igo dira, eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,2 igo dira, aurreko hilabetearekin alderatuta. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun ez iraunkorretan* % 0,3 igo dira prezioak, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorretan*, berriz, % 0,4. Aitzitik, *Energia* % 10,0 jaitsi da, eta *Bitarteko ondasunak* % 0,1.

Urtetik urterako datuei dagokienez, 2020ko martxoan 2019ko martxoari dagokionez, prezioen hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,4ko igoera), *Garraio-materialean* (% 3,8koa) eta *Erauzketa-industrietan* (% 3,5ekoa). Alderantziz, honako sektore hauei dagozkien prezioek izan dituzte beherakadarik handienak: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 26,3ko jaitsiera), *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 3,3koa) eta *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (% 2,1ekoa).

Ondasun-talde handien prezioen aldakuntza, xede ekonomikoaren arabera, positiboa izan da urte artean *Ekipo-ondasunentzat* (% 1,5 hazi dira) eta *Kontsumo-ondasunentzat* (% 2,3 igo dira oro har). Azken horien artean, % 2,5 igo dira *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* prezioak eta % 1,1 igo dira *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak*. Aitzitik, *Energiaren* sektoreak soilik egin du behera prezioetan, % 15,6 jaitsi baitira, zeren *Bitarteko ondasunenak* ez baitira aldatu (% 0,0).

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Martxoa

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2020mar / 2020ots	2020mar / 2019mar	2020mar / 2019abe
INDIZE OROKORRA	101,5	-1,8	-2,7	-2,4
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	107,9	-2,2	3,5	2,2
Manufaktura-industria	101,9	-2,2	-2,8	-3,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	98,4	0,9	-2,1	1,1
Ura	107,9	-1,0	2,6	3,3
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	105,0	0,2	2,3	0,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,7	-0,4	1,1	0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	105,3	0,3	2,5	0,5
Ekipo-ondasunak	108,0	0,5	1,5	0,5
Bitarteko ondasunak	102,6	-0,1	0,0	0,2
Energia	91,9	-10,0	-15,6	-13,7

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62